

Año LII. urtea

130 - 2020

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Jean Etxepare eta Eskola
(1901-1926)

Argia OLÇOMENDY

Jean Etxepare eta Eskola (1901-1926)

Jean Etxepare y la Escuela (1901-1926)

Jean Etxepare and School (1901-1926)

Argia OLÇOMENDY

Bordeaux Montaigne Unibertsitatea IKER UMR 5478

argia.olcomendy@u-bordeaux-montaigne.fr

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv.130.3>

Eskerrak Jon Casenaveri Jean Etxepareren inguruko argitasun zehatzak emanik.

Jasotze data: 2020/04/12. Behin-behineko onartze data: 2020/05/13. Behin betiko onartze data: 2020/05/27.

LABURPENA

Artikulu honek Jean Etxeparek eskolari buruz duen pentsamolde koherente eta originalaren aztertzeke xedea du. Bere ikusmolde laikoa XX. mende hastapeneko Ipar Euskal Herriko testuinguru politiko eta pedagogikoan kokatu behar da. Euskara eskolan sarzteari buruz gogoetatu ondoan, irakasle idealaren figura marrazten du eta Ipar Euskal Herriko ikasle euskaldun ikasiaren kultura zehazten.

Gako hitzak: eskolako kultura; euskararen irakaskuntza; irakaslearen figura; haur ikasia.

RESUMEN

El presente artículo analiza el pensamiento coherente y original que desarrolla Jean Etxepare en torno a la escuela. Su visión laica debe situarse en el contexto político y pedagógico del País Vasco Continental a principios del siglo XX. Tras reflexionar sobre la incorporación del euskera en las escuelas, traza la figura del profesor ideal y define la cultura del alumno instruido del País Vasco Continental.

Palabras clave: cultura escolar; enseñanza del euskera; figura del profesor; alumno instruido.

ABSTRACT

This article proposes to explore the coherent and original mindset of Jean Etxepare about school. His secular vision of the 20th century must be placed in the political and educational context of the North Basque Country at the turn of the century. After reflecting on the inclusion of Basque in the school, he drew the figure of the ideal teacher and described the culture of the Basque student from the northern Basque Country.

Keywords: school culture; Basque teaching; figure of the teacher; cultivated child.

1. SARTZEA. 2. TESTUINGURU POLITIKO ETA PEDAGOGIKOA (1901-1909). 2.1. Aberri ttipia eta erregionalismoa. 2.2. Mendiondoko eskolen kalapita (1903). 3. ESKOLAKO GAIEI BURUZKO IDAZTE GARAIA (1910-1916). 3.1. Eskola Ipar Euskal Herrian. 3.2. «Nor eskola emaile. Zer irakats» (Etchepare, 1910). 3.3. Irakasle onaren figura. 4. GOGOETA-TZETIK OBRATZERAT (1917-1926). 4.1. Euskara eskolan 1920 urteetan: akuilatua eta debekatua. 4.2. Haurren primak (1923-1926). 4.3. Ipar Euskal Herriko haur euskaldun ikasia. 5. BURURAPENA. 6. ERREFERENTZIAK.

1. SARTZEA

XX. mende hastapenean, euskal prentsak jorratzen dituen gaien artean dugu eskola. Oro har, *Eskualduna*, *Gure herria* eta *Eskual-Herria* aldizkarietan, irakaskuntza aipatzen duten artikulua franko argitaratzen da: lege testuak eta ministroen erranak komentatzen dira, mintzaldiak aipatzen dira, zenbaitetan frantsesez baina gehienetan euskaraz. Jean Etxeparek 25 urtez, eskolari buruzko 30 bat artikulua baino gehiago agerrarazi ditu.

Orain arte, Jean Etxepareren eta bere obraren aztertzaile nagusiak Piarres Charrington, Jon Casenave, Kepa Altonaga, Sebastian Gartzia Trujillo eta Aitor Ortiz de Pinedo izan dira. Piarres Charringtonek Etxeparek agerrarazi artikulua bildu eta argitaratu ditu (Etchepare, 1984-1994). Jon Casenavek erakutsi du *Buruxkak* prentsa artikulua bilduma azkenean saiakera literarioa zela eta Etxepareren figura intelektuala eta atipikoa barnatu du (Casenave, 2002). Kepa Altonagak Jean Etxepare medikuaren bizia eta ibilbidea erakutsi ditu (Altonaga, 2006). Sebastian Gartzia Trujillok erlijioaren presentzia eta Jainkoaren irudia aztertu ditu Etxepareren obran (Gartzia Trujillo, 2016). Aitor Ortiz de Pinedok *Beribirez* bidaia eleberria aztertu du (Ortiz de Pinedo, 2018). Aztertzaile nagusi horiez gain, Euskal Herriko literaturaren historia osatzen duten liburuetan, Luis Villasantek, Koldo Mitxelena, Piarres Lafittek, Iñaki Aldekoak, Jon Kortazarrek eta Jean Baptiste Orpustanek Etxepare euskal literaturako idazle nagusi bezala aipatzen dute.

Alta, Jean Etxeparek eskolako kulturari buruz duen ikuspegia aztertzekoa da. Lehenik *Eskualduna* astekarian «Eskual-Herria» saileko artikulua ditugu: «Mendiondoko

eskolak» (1903) eta «Errientak» (1904). Ondotik, artikulu hauek ditugu «Eskuara» sailean: «Eskuararen erakustea» (1911), «Eskuararen erakusteko» (1911), «Eskuara nun erakuts» (1911), «Haurren primak. Istudiantak» (1923), «Haurrak. Seminarioan. Haurrentzat berria» (1923), «Zer ikas» (1925), «Nola ikas» (1925), «Ikasetxean» (1925), «Haurren primak» (1925), «1925eko sariketak» (1925), «De Monzie, euskararen etsai» (1925), «Haurrer» (1926), «Eskuara eta frantsesa» (1926), «Irakurtzen ez jakin» (1926), «Bigarren traba» (1926), «Nola erakats» (1926), «Ondorioak» (1926). *Gure Herria* aldizkarian ere eskolaren gaia aipatzen du, hara nola «Eskualtzaleen bil-tzarra» saileko bi artikulutan, «1924ko sariketak» eta «1926ko sariketak».

Bestalde, irakaslearen figura ere atera daiteke, Etxeparek Larresoroko seminarioan ukan dituen irakasle ohien hil berri kronika literarioetarik abiatuz: «Jean Hiriart Urruty Kalonjea (1859-1915)», «Arnaud Abbadie Kalonjea (1843-1916)», «Jean Blaise Adéma jauna (1861-1936)»¹. Kronika hauek Etxeparek eskolako kulturari buruz duen pentsamoldearen berri ematen dute, euskara eskolan sartzeari buruz gogoeta egiten dute eta proposamenak agerrarazten.

Azkenik, *Buruchkak* saiakera literarioan, hiru saiakera filosofikoez eskolako kultura aipatzen dute: «Nor eskola emaile. Zer irakats», «Igande arratsaldetan neskato gazteentzat», «Eskuararen ikasteko» (Etxepare, 1910). Etxeparek orduko gizartean aipagai diren erreformak solasgai ditu, ereduak proposatuz eta irakurlea gogoetatzeraz gonbidatuz. Piarres Xarritonen anekdota honek Jean Etxepare medikuaren bokazio pedagogikoa azpimarratzen du:

Baina Lekornen ezagutu nuen ere, Erlandeeneko Josefinaren ahizpa Graxiana Al-dudeko Etxartekin ezkonduaren alaba, Ahurtiko Cazenave kolonelaren andrea eta orduan Erlandeeneko etxekanderea zena. Eta ez nagoke salatu gabe Cazenave andreak kondatu zidala orduan oroitzapen hau: Uztaritzeko seroren eskoletan zebile-larik, burasoek bidali zuten oporretan osaba mirikuaren etxera Aldudera. Ba omen baitzuen osaba mirikuak bere bulegoan eskeleto bat, hezurki handi hura ezkaratzean etzanik eta haren ondoan osabak berak belauniko emanik, ilobari errepikarazten ziz-kion hezur bakoitzaren latinezko izenak. Ez da erraite beharrik, eskolara itzultzean, anatomiako leitzone horien ondotik, beti lehen lerroan kokatzen zela mirikuaren iloba. Eta geroztik guhaur bagaude gogoeta, Euskal Herriak izan balu orduan Unibertsita-terik ez ote zuen goi mailako alki bat hor hartuko gure Etxeparek, geroztik Cazenave semek Bordeleko Unibertsitatean Kimioterapia alki, ez aspaldi bera hil arte atxiki duen bezala. Zinez familia horren geneetan, bazitezkeen pedagogo handien sortzeko ekai guztiak (Altonaga, 2006, 12. or.).

Zein da Jean Etxepareren ikuspegia eskolari buruz? Zer heinetan euskara eskolan sartzeak hizkuntza laguntzen ahal du bizirik irauten? Urteak joan arau, Etxepareri ikus-pegia aldatzen ote zaio? Autorearen pentsamolde koherente eta originalaren aztertzeke,

¹ Etxepare 1931n hil zenez gero, ezin izan du izenburu hori ezarri. Badakigu 1925eko artikulua dela eta nor-baitek izenburua hunki duke.

lehenik, eskolari buruz duen ikusmolde laikoa aztertuko dugu, Ipar Euskal Herriko testuinguru politiko eta pedagogikoan kokatuz. Ondotik, zehaztuko dugu irakaslearen figura nola finkatzen duen, baita ere zer gogoeta egiten duen eskola eta euskarari buruz. Azkenik, gogoetazetik obratzerat iraganez, Ipar Euskal Herriko ikasle euskaldun ikasiaren kultura zehaztuko dugu.

Kronologia:

- 1901: Frantzia, Waldeck-Rousseau Frantziako Kontseiluko presidente eta Barne eta Kultuen Ministroak elkartearen legea bozkaratzen du.
- 1902: Frantzia, Combes zirkularrak katixima frantsesez egitera behartzen du.
- 1903: Lekorneko eskolen kalapita Jean Etxeparearen eta herriko errientaren artean.
- 1904: Emile Combes gobernu buruaren legea dela medio, Frantzia irakastea debekatzen zaie erlijio kongregazioei.
- 1905: Frantzia Elizen eta Estatuaren arteko bereizte legea.
- 1910: Jean Etxeparek *Buruchkak* liburua inprimatzen du, «Nor eskola emaile. Zer irakats» saiakera barne.
- 1911: Faure zirkularrak, Frantzia, eskoletan tokiko Historia eta Geografiaren irakastea bultzatzen du.
- 1913: Prefetak eta Akademia inspektoreak proposaturik, euskara Ipar Euskal Herriko eskola publikoetan sartzen da.
- 1923: Gieure apezpikuaren manuz, euskara eta Euskal Herriko historia irakaskaiak Baionako diozesako lehen eta bigarren mailako ikastetxeetan sartzen dira.
- 1923-1926: *Eskualtzaleen biltzarra* elkarteko buru gisa, Jean Etxeparek haurren primak antolatzen ditu Ipar Euskal Herriko kantonamenduetan.
- 1925: De Monzie frantses hezkuntza ministroaren zirkularrak eskolan lekuko mintzairaren baliatzea debekatzen du.

2. TESTUINGURU POLITIKO ETA PEDAGOGIKOA (1901-1909)

2.1. Aberri ttipia eta erregionalismoa

XX. mende hastapenean aberri ttipi eta handien kontzeptua garatzen da, Ipar Euskal Herriko eskolako kulturaren ulertzeko funtsezkoa dena. Kontzeptu horren arabera, Frantzia aberri handiaren osagai inportanteak dira Ipar Euskal Herria, Britainia eta

Korsika bezalako aberri ttipiak. 1900 urteetan, Frantziako eskualde zenbaitetan nortasun azkarrak direnez, Errepublikak nahiago ditu bere baitan integratu kontra joateko orde. III. Errepublikak eginahalak plantan ezarri ditu eskolako ikasleak frantses on batzuk izan daitezten (Thiesse, 1997).

Le tour de France par deux enfants liburuak aberri ttipi eta handien kontzeptua ontsa erakusten du (Bruno, 1877). Liburuan, André eta Julien bi haurrak Frantzian gaindi ibiltzen dira 1871n, Lorrenatik abiatuz (hiria Alemanek menderatzen dute Frantziak Prusiaren kontra gerla galdu ondoan). 1877an, Eugène Belin liburugileak liburua argitaratzen du, Bruno izengoitiarekin; Frantzian errientek eskoletan baliatzen dute. Ondoko erranaldiak liburuaren aitzin solasetik hartuak dira.

La patrie ne représente pour l'écolier qu'une chose abstraite, à laquelle, plus souvent qu'on ne croit, il peut rester étranger pendant une assez longue période de sa vie. Pour frapper son esprit, il faut lui rendre la patrie visible et vivante.

Bruno autoreak bere solas didaktikoan esplikatzen du ikasleei Frantziaren aniztasun miresgarria ikusarazi behar zaiela. Frantzia aldi berean anitza eta bakarra da. Mende batez, liburuak 500 edizio ukan ditu eta 8,6 milioi aletan saldua izan da. Liburua III. Errepublikaren garaian eskoletan baliatua zen, propaganda eskuliburu eta abenturazko eleberri bezala, morala eta aberria goresten zituen (Nora, 1984).

XX. mende hastean, Frantzian erregionalismoak eskolaren baitan eragina badu, bereziki literatura edo historia eta geografia bezalako ikasgaietan. 1901ean, Pirinio Apalak departamenduko Jouve lehen mailako inspektoreak *Lectures du Pays basque français* agerrarazten du (Chanet, 1996, 291. or.). Ipar Euskal Herriko ikasleek frantses literaturari buruz duten jakitatea osatzen ahalko dute tokiko kultura literarioarekin. Testu erregionalistek gero eta leku gehiago hartzen dute literaturaren irakaskuntzan. Bestalde, kantua ere inportantea da, eskola haur euskaldunen eztitzeko eta goxatzeko manera bezala ikusia da (Chanet, 1996, 313. or.):

Le Basque aime le chant concédait en 1901 l'Inspecteur d'Académie des Basses-Pyrénées, mais habitué à se livrer à cet exercice en plein air, il crie plutôt qu'il ne chante. Aussi, instituteurs et institutrices feront bien d'accoutumer leurs élèves à chanter sur un ton élevé, bien en mesure et avec le sentiment des nuances.

2.2. Mendiondoko eskolen kalapita (1903)

1902an, Emile Combeseren gobernuaren lege batek katixima frantsesez irakastea behartzen du (Chanet, 1996, 61. or.). Francière Pirinio Apaletako prefetak, Baionako Elizari erraten dio 1903tik goiti katixima frantsesez irakatsia izan beharko dela Ipar Euskal Herriko herrietan. 10 apaizen ukoaren ondorioz, lansaria kendua zaie. Etcheverry-Ainchart Baigorriko auzapezak herriko apaizaren sostenguz bere kargua uzten du (Tauzia, 1973).

1903an, Lekornen (Lapurdi) herriko lau eskolei buruz kalapita bat pizten da. Sei hilabetez, Jean Etxeparek eta herriko errientak Barthélémy Apezarenak prentsan artikulua

agerrarazten dituzte: Etxeparek *Eskualduna* eta *La Semaine de Bayonne* astekarietan, *Nor-eta Nor Egiazail*, eta *Irrihotz* izengoitiek, herriko errientak berriz, *Eskual-Herria* astekarian, *Hor dago* izenpedurarekin².

Francière garaiko prefetak Lekorneko Servantes de Marie kongregazio eskolen hestea galdegiten du eta herriko etxeak Prefetaren erranak segitzen ditu (Casenave, 2002, 58-59. or.). 1903ko martxoaren 13an, 27an eta apirilaren 3an eta 24an, *Eskualduna* astekariak *Nor eta Nor* izengoitiz izenpetuak diren 4 artikulua argitaratzen ditu, Lekorne-Mendiondo herriko berrietan.

Eskola heste horiek testuinguru zabalago bati lotuak dira. Frantzian, 1901eko uztailaren 1eko elkarteei buruzko lege berriak dio erlijio kongregazioek baimena galdegin behar dutela lege mailan izate baten ukaiteko. 13. artikulua haxe dio: «Aucune congrégation religieuse ne peut se former sans une autorisation donnée par une loi. Elle ne pourra fonder aucun nouvel établissement qu'en vertu d'un décret rendu par le Conseil d'Etat». 2500 erlijio eskola kentzen dira, haurren berriz eskolatzea proposatuz eta kongregazioek helarazten dituzten galde guziak banazka baztertuak dira (Bordenave, 1995).

Frantzian, Emile Combes-ek (1835-1921) Elizaren kontrako politika bortitza daroma, Kontseiluko presidente izaki (1902-1908); laikitzea nagusiki eskolaren bitartez egiten da. Kongregazioei irakastea debekatzen die eta egun batetik bestera, serora anitz laiko bilakatzen dira. Anitzek Frantziatik ihes egiten dute, Ipar Euskal Herritik Gipuzkoara doaz.

Martxoaren 13ko artikuluan, Etxepare herriko kontseiluaz trufatzen da, doinu ironikoa eta polemikoa baliatzen du. Iradokitzen du jazartzeko orde, kontseilariak prefetaren meneko direla. Herriko kontseiluak Servantes de Marie kongregazioaren hestea galdegin du boz batez. Herriko eskoletan 35 ikasle dira, 4 irakasle (hiru errientsa eta errient bat), 3 eskola, auzo bakoitzean bat, hots, Atizanen, Gerezieta eta Lekornen.

Martxoaren 27ko artikuluan, 15 egun berantago, eskola laiko berria eta hutsa du aipagai, beti ironikoki. «Beira ditzagun beraz ditugun eskola emaileak». Etxepare seroren sekularizazioaren alde agertzen da, 1902tik goiti, herriko eskolak laiko bilakatzen direlarik, serora anitzendako gertatzen den bezala.

Maiatzaren 2an, *Eskual-Herria* astekarian Lekorneko errientak³ salatzen du Jean Etxepareren ideiez aldatzea (Hor dago, 1903).

2 Errientaren izena Lekorneko herriko etxeko artxiboetan aurkitu dugu. 1903ko herriko sortzeen aktan, haur baten sortzearen lekuko agertzen dira biak, Jean Etxepare medikua eta Barthélemy Apeçarena errienta.

3 Ez dugu aurkitu izengoiti hori baliatzen duen errienta nola deitzen den.

Nor-eta-Norek laudatu ondoan jaun errieta bai «Semanean», bai «Eskualdunean» horra non, orai, jaun haren kontra mintzo den. Zer dira holako gizonak, egun xuri eta bihar gorri diren horiek? Ez deusik arradorik: lehenago ikasi du (sic), holakoak deitzen direla «girouette» edo hobeki oraino «linotte».

Errientak dioen bezala, Etxepare Lekorneko eskolen laiotzearen alde agertu da hasapenean eta gero ideiez aldatu da. Edo, haste-hastetik kontra zen eta ez du bere posizioa argiki adierazi, ironiarekin eta polemikarekin jostatuz, errientak du Etxepareren posizioa gaizki ulertu.

Artikulu hauek argitan ezartzen dute Iparraldean XX. mende hasapenean den eztabaida politikoa, errepublikano laikoan eta elizatiar kontserbadoreen artean. 1991an, Piarres Charrittonek *Mendiondoko eskolak* izenburu pean bildu ditu Etxepareren sei artikulu⁴, Berriak I, Lekornetik partean, 1988ko *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak* eta III, *kazetaritza (A) (1903-1915)* liburuan. Bestalde, bada zazpi-garren bat «Errientak» *Buruxkak II* izeneko partean bildu zuena (Etchepare, 1988, 22. or.)⁵. Etxepareren posizio aldatze horrek dudak sorrarazten ditu. Artikulu guziak berak idatziak ote dira? Ideiaz aldatu da? Hona Jon Casenaveren ikusmoldea (Casenave, 2002, 61. or.):

Il est donc permis de penser que le jeune médecin de Mendionde s'est rallié à la cause défendue par son collègue de Hasparren et qu'il a fait taire ses préférences laïques au nom de son intérêt naissant et jamais démenti par la suite pour la langue basque.

Ez dakigu zuzen Etxeparek zer posizio duen eztabaidari buruz. Artikulu trukaketa hori medikua eta errieta, herriko bi pertsonalitateen arteko pataska pertsonal bat baizik ez da, non errientak auzapezaren baitan eragina baduen? «Askotan iduri luke egiazki jaun errieta dela...auzapez». Bestenaz, pentsa daiteke Etxepare Lekorneko eskolen laiotzearen alde zela, eta hilabeteak pasatu arau, Lekorneko kongregazio eskolen alde egin duela herriaren onetan. Beraz bere posizio laikoa ukatu du? Menturaz. Gatazkaren bi irakurketa bereizten ahal dira: alde batetik Etxepare Lekorneko herritar berrikerria eta bestetik euskal idazle pentsalari laikoa. Etxepare eskolaren laiotzearen alde izanik ere, ez du begi onez ikusten herriko kontseilua prefetaren meneko izan dadin, eta aspalditik hor ziren serorak gisa horretan kanpora ditzan. Hots, Eskola laikoaren alde izanik ere, Combes gobernuaren egin molde erradikalak ez ditu onesten, ez eta ere herriko kontseiluaren menekotasuna prefetari eta errespetu eskasa serorei. Kongregazioen alde joate hori katixima euskaraz debekatzeari lotzen ahal liteke.

4 1903ko martxoaren 13ko eta 27ko, apirilaren 3ko eta 24ko, agorrilaren 14ko, urriaren 30eko *Eskualduna* astekarian, Mendionde partean, Lekorneko herriko berrietan.

5 Azken honekin arazo bat bada: 1904ko urtarrilaren 15eko ale digitalizatua ez da osorik agertzen, ez da lehen orrialdea ez daiteke irakur. Horregatik, Piarres Xarritonek argitaratu liburuaren erreferentzia ezarri dugu.

3. ESKOLAKO GAIEI BURUZKO IDAZTE GARAIA (1910-1916)

3.1. Eskola Ipar Euskal Herrian

1911n, Faure zirkularra agertzen da Frantzian, eskoletan lekuko Historia eta Geografiaren irakaskuntza akuilatzen du. Urte bat lehenago, Etxeparek *Buruchkak* liburuko «Eskuararen ikasteko» kapituluan ideia aitzinatua du Ipar Euskal Herriko eskolendako:

Zendako ere, delako eskoletan, ez litake artetik hitz bat aipha gure lurak jasanik dauzkan gertakariez, sorthu dituen gizonez, erabili dituen itzulikez, bederen azken mende hotan? Zendako ez izenda Eskualdunek bururatu esku-lan miragarriak, ikertu leihorak, neurtu kantuak, piztu ala pairatu gerlak, agertu liburuak, beren artean jenden ala ontasunen alderateko finkatu lege zuhurrak.

1911n, Jean Jaurès Frantziako errientei zuzentzen zaie *Revue de l'Enseignement primaire et primaire supérieur* aldizkarian. «Méthode comparée» artikuluan, metodo konparatiboaren alde agertzen da, Ipar Euskal Herriko haurrek frantsesa euskararen bitartez ikas dezaten (Jaurès, 1911):

Il y a quelques semaines, j'ai eu l'occasion d'admirer en Pays basque, comment un antique langage, qu'on ne sait à quelle famille rattacher, avait disparu. Dans les rues de Saint-Jean-de-Luz on n'entendait guère parler que le basque, par la bourgeoisie comme par le peuple; et c'était comme la familiarité d'un passé profond et mystérieux continué dans la vie de chaque jour. Par quel prodige cette langue si différente de toutes autres s'est-elle maintenue en ce coin de terre?

Mais quand j'ai voulu me rendre compte de son mécanisme, je n'ai trouvé aucune indication. Pas une grammaire basque, pas un lexique basque dans Saint-Jean-de-Luz où il y a pourtant de bonnes librairies. Quand j'interrogeais les enfants basques, jouant sur la plage, ils avaient le plus grand plaisir à me nommer dans leur langue le ciel, la mer, le sable, les parties du corps humain, les objets familiers ! Mais ils n'avaient pas la moindre idée de sa structure, et quoique plusieurs d'entre eux fussent de bons élèves de nos écoles laïques, ils n'avaient jamais songé à appliquer au langage antique et original qu'ils parlaient dès l'enfance, les procédés d'analyse qu'ils sont habitués à appliquer à la langue française.

C'est évidemment que les maîtres ne les y avaient point invités. Pourquoi cela, et d'où vient ce délaissement? Puisque ces enfants parlent deux langues, pourquoi ne pas leur apprendre à les comparer et à se rendre compte de l'une et de l'autre? Il n'y a pas de meilleur exercice pour l'esprit que ces comparaisons; cette recherche des analogies et des différences en une matière que l'on connaît bien est une des meilleures préparations de l'intelligence. Et l'esprit devient plus sensible à la beauté d'une langue basque, par comparaison avec une autre langue il saisit mieux le caractère propre de chacun, l'originalité de sa syntaxe, la logique intérieure qui en commande toutes les parties et qui lui assure une sorte d'unité organique.

1913an, Eskualtzaleen biltzarra kultur elkartearen aldarrikapena onartua da. Urriaren lehenetik goiti, errient euskaldunek euskara baliatzen ahalko dute Ipar Euskal Herriko eskola laikoetan, Coggia prefetak eta Gaillard Akademia Inspektoreak proposaturik (Goyhenetche, 1994, 60. or.).

Gerla denboran, gerlaren gaia eskolan sartzen da. Eskola sartzea heldu delarik, badu bi hilabete gerla hasia dela. 1914ko buruilararen 30ean, Albert Sarraut Hezkuntza publikoko ministroaren manuz, errientek zuzentzen duten lehen hitza ikasleei frantses aberriari buruz ari da. Lehen ikasgaia, Frantzia engaiatua den borroka sakratuaren ohoretan. Eskolak eta guduak bat egiten dute, laster eskola propagandaren tresna nagusi bilakatzen da eta errientek gerla euskarri pedagogiko bezala baliatzen dute. «Ageri da frantses izaten irakatsi zietela, Frantzia maitatzen eta Frantziarentzat gerla egitera prestatu zituztela, psikologikoki eta fisikoki» (Bidegain, 2012, 156. or.).

Hain zuzen, Erramun Etxebarneren *Erramun barginaren oroitzapenak* ipuin bildumako zati honek erakusten du eskolan nola haurrei gerlaren kultura transmititzen zaien, hemen Baxe Nabarreko herriko eskolan, Ahatsan (Etchebarne, 1989, 17. or.):

Biziki ardura mutikoak ar arazten gintuen karabina batekin kartoin bati tiroka, erranez behar ginuela tiratzen untsa ikasi, zeren jinen zela egun bat, nun beharko baiginuen alemanek guri ebatsi lurra berriz hartu. Hura zen l'Alsace et Lorraine. Denbora hartako Frantziako kartek beltzez markaturik agertzen zuten guri alemanek 1870-ean hartu lurra. Orroitzen naiz beti harek erakutsi lehen kantuz «Enfants, regardez sur ces cartes ce point noir qu'il fait effacer...

3.2. «Nor eskola emaile. Zer irakats» (Etchepare, 1910)

1910ean, Jean Etxeparek *Buruchkak* liburua Tours-eko Mame moldiztegian inprimarazten du, baina adiskide eta familiakoek aholkaturik, liburuaren aleak ez ditu etxetik ateratzen (Etchepare, 1910).

Liburua hor zuten, bapho eta eder, bainan ezin onhetsizko bi kapitulu hitsekin: batean, aphezen eskoleri ezin aiherrago zagon, baizik-eta erlisione dena ilhunbe dela eta egiaren gordatzale bertzean, ausartzia guziak bilduak zauzkan, itsusienak barne, amodio garbia eta bertze edozoin, berdin haizu emaiteraikoan.

Ahaide-adixkidek, bixtan da, beltzuri egin zioten. Ez zituela bada arima ahul edo minberak nahasi edo zaurtu behar, miriku gazteak etxen bahitu zuen bere liburu ozarra, nehorri bakhar bat saldu gabe (Lafitte, 1941).

1941ean, bigarren edizioan, bi saiakera horiek berek dituzte berriz ere arazoak sortzen eta Aitzin-solasean Piarres Lafittek esplikatzen du bi saiakera hauek ediziotik kendu behar direla, hots, argi eta garbi bigarren edizioa zentsuratzen du:

Liburu hori, ditaken eskuararik garbienean egina delakotz, nahi izan dugu salbatu: bi kapitulu dohakabeez arindurik eta hitz dorphexko bakhar batez, zen bezala-bezala agertzen dugu (Lafitte, 1941).

«Nor eskola emaile. Zer irakats» eta «Amodioa» argumentuzko bi saiakera filosofikoak bigarren ediziotik kenduak izan dira: liburuak zinezko zentsura pairatu du. Ez dakigu zuzen «Nor eskola emaile. Zer irakats» noiz idatzi duen Etxeparek, baina Frantziako testuinguru politikoa ikusiz, pentsa daiteke 1905 eta 1910 urteen artekoa dela, zurien eta gorrien arteko gatazkak gorenean direlarik. Saiakera literario hau gogoeta filosofiko baten egiteko egokia da, Etxeparek Frantziak daraman Hezkuntza politika bere osotasunean hartzen du eskola ttipietarik unibertsitateraino. Emile Durkheim (1858-1917) frantses soziologiaren sortzaileak, Bordeleko unibertsitatean gizarte filosofia irakasle eta ikertzaile izanak, eragina ukan duke urte horietan Etxepare Bordelen baitzen (Casenave, 2002). «Kasurako, badirudi Etxepareren irakaskuntzaren planteamenduak zorretan daudela Durkheimekin, baina, zehazteke dago zein neurritan dauden» (Altonaga, 2006, 88. or.).

Saiakera honetan, Etxeparek irakaskuntzaren antolaketa soziala bere osotasunean hartzen du eta gaia manera subjektiboan eta polemikoan aurkezten, bere ikuspegia argiki emanez. Testua sei partetan zatitua da. 1) Elizaren eta Gobernuaren arteko elkarrikerketak 2) Elizaren eta Gobernuaren eskola politikaren kontaketa 3) Ikerketak eta formakuntza unibertsitarioa hiri handietan 4) Tituluak eta gobernuko irakasle gaiak 5) Gobernuak eta Elizak bakoitzak bere ikastetxe profesionalak 6) Apaiza ez da eskola emateko egina.

Lehen partean, elkarrikerketak filosofiko bat abiatzen da, diskurtso zuzenean, fikziozko egoera batean, pertsonifikatuak diren Eliza eta Gobernuaren artean. Elizaren argumentazio eskasaren ondotik, gobernuaren kontrako argumentazioaren aldi da. Elizaren diskurtsoa Jainkoaren baitako sinestean eraikia da, «sineste» anaforarekin. Gobernuak irudikatzen duen pertsonaiaren giblean Etxepare bera dugu. Argumentuzko estrategia entzulego berezi bati zuzendua zaio, irakurlea gogoetatzera akuilatzen du eta dituen segurtamenak zalantzan ezar ditzake.

Bigarren partean, kontaktaren aldi da. XIX. mendean Frantziaren eramaia izan den eskola politika molde metaforikoan kontatua zaigu. Konparazioek eskola pribatuak gutiesten dituzte: «Laster ikusi ginituen alde orotan sortzen beren baitarik, onddoak iduri libroak erraiten zeien eskolategiak». Bi instituzioen arteko gatazka bortitza pertsonifikatua da, «Harek gibeletik zimiko, hunek itzul eta beharrondoko». 1833ko Guizot legea Frantziaren laiotze prozesuaren hastapena berriz, iradokia: «Mutiko gazteen-tzat baitzauzkan Gobernamenduak eskoletxe hetsi batzu, bere eskukoak». Finantza publikoen kudeaketa hobea galdegiten du.

Hirugarren partean, diskurtsoak laiotze politika salatzen du soberakina baita. Adibidez, eskola-etxe berri sobera eraikitzen da eta irakasle sobera bada. Galde erretrikoek diskurtsoa antolatzen dute, Etxeparek kalitatezko unibertsitateko irakaskuntza sistema aldarrikatzen du. Frantziako hiri handietan, ikerketa eta formakuntza elkarri

lotuak ikusten ditu, hots unibertitateak eta fakultateak Frantziako sei edo zazpi hiri nagusietan bilduak: Paris, Lyon, Marseilla, Bordele, Lille, Tolosa, eta Nancy.

Laugarren partean, Etxepare bere izenean mintzo da «governamendua banintz», modaliztzaileak baliatuz. Nahiz aipatzen dituen ideiak gizartean nekez onartuak diren, ez ditu beste norbaiti erranarazten, diskurtsoa osoki onesten du eta bere gain hartzen. Etxepareren ikuspuntua pertsonala da eta esplizitua. Gaiak eta eztabaidak bata bestearen ondotik garatuak dira: ikasleei Ministerioak eman behar dizkie diplomak eta eskola laikoetako irakaslegaien harrobia zabala izan behar da.

Bosgarren partean, hezkuntza sistema publikoaren koherentzia argitan emana da. Ferdinand Buisson bezala, Etxepare irakaskuntza profesionalaren alde da. Berriz ere elizaren eskolak eta gobernuak bereizten ditu.

Seigarren partean, eskola publikoen eta kongregazio eskolen arteko lehia, dinamismo ekarle izan daiteke. Etxeparek bere posizio laikoa argiki ematen du, kongregazio irakaskuntza bati lekua utziz, baina gobernutik kanpo. Aldiz, apaiza irakaskuntzatik kentzen du: «azken hitz ezarriko dugu: baizik eta apezak ez ditugula erakustuntzat onesten, non ez den beren adimendu osoan apezteko xedea hartu dutenen alderat».

«Nor eskola emaile. Zer irakats» saiakera politiko, sozial eta historikoak kontatzen du Frantziak eraman duen eskola politikaren laiotze ibilbidea XIX. mendean, ikuspegi laiko batetik ikusirik. Argumentazioaren molde franko baliatzen ditu (elkarrietzeta filosofikoa, argumentazio estrategiak, etab.). Etxepare garaiko ideia nagusiaren kontra doa, eskola laikoaren alde eta apaizen irakaskuntzatik kentzearen alde. Eskolen arteko bakea nahi du, hots erdibide bat proposatzen du, Combesearen politika erradikaletik urrunduz, baina laikotasunaren printzipioa fermuki atxikiz. Eskola laikoen eta kongregazio eskolen arteko lehia, ikuspegi baikor batetik hartzen da, kalapita bezala ikusteko orde, lehia izateak eskolen hobetzea eragiten baitu. Ipar Euskal Herriko irakurleari zuzentzen zaio, hezkuntzaren gaia gogoetatzeko eta berri pentsatzeko.

3.3. Irakasle onaren figura

Etxeparek, irakasle ukan ditu Arnaud Abbadie, Jean Hiriart-Urruty eta Blaise Adema bestalde *Eskualduna* astekariko nagusi direnak, Jean Barbier, Jean Saint-Pierre Anxuberro, Jules Moulier Oxobi, Laurent Apeztegi eta Jean Elizalde Zerbitzarirekin batera. Larresoroko seminarioan (1733-1905), eragin handia ukan dute irakasle edo/eta idazle bilakatuko diren ikasleen ibilbidean. Etxeparek, Champagne aldean delarik, jakiten du bere irakasle ohia hil izan dela eta haren omenez, hil berri kronika literario bat idazten du, 1915eko azaroaren 16an, «Jean Hiriart Urruty Kalonjea (1849-1915)».

Ahopaldi nasaiak zituen laketenik; sekula, kasik ez biga datxikola, josturaz berdin. Batzutan, bospasei alditaraino hatsa artetan hartuz eta zure begia zabalik hari beha,

ondarrerat aurdikitzen zuela sartu nahi zautzun pindarra: bertze batzuetan, den mami, eraskitza eraskitzari jarraikiaraziz joriki, burua ezteki joaren ariaz, betetzen zautzula eta argitzen; noiztenka pilota batzu bezala hitz andana bat erainik, xingilika heien artean ibilarazirik, gogoa dilindan, bainan asmatu nahiarekin ernatua, uzten zautzula, irriz.

1916ko apirilaren 6an, beste hil berri kronika literario bat argitaratzen du, aldi honetan filosofiako irakasle zenaz. Lau partetan zatitzen ahal da: haren hizkuntza, erabiltzen dituen gaiak, haren estiloa eta haren obraren berrargitaratzea (Altonaga, 2006, 251. or.):

Gaztetasunerat heltzearekin ukan dut Abbadie-ren erakustun bezala aditzeko zoriona. Filosofia zerakasan. Hari dakogu zor, Euskal Herrian zerbait giren gehienek, gure adimenduko indarririk hoberena: zoin bidez dabilan xuxen jakitea; makur doala zertarik gitazken ohar, sendo gireno; zer den gure arima, mendetik mendera jakintsunek nolako jaidurak daizkoten atzeman.

Maisuaren figura anitz aldatu da Historian zehar. Maisuaren eta ikaslearen arteko harremanean, ikaslea oreka baten bila ari da, dependentzia eta autonomiaren artean, autoritatearen errespetuaren eta emantzipazioaren artean, «ni»-aren aldarrikapena «zu» baten kontra. Historiaren eta instituzioen aldetik, zer botere du maisuak? Zer da maisu ona izatea? (Noacco, Bonnet, Marot & Orfanos Charalampos, 2013).

Gerla denboran, Etxeparek irakasle idealaren figura marrazten du, Larresoroko seminarioan ukan dituen bi irakasle nagusiak omenduz, Jean Hiriart Urruty eta Arnaud Abbadie, biak kultura handikoak. Bakoitzarentzat hil berri kronika literario bat idazten du *Eskualduna* astekarian. Maisuak aurpegi anitz ditu.

Hiriart Urruty maisuak euskararen hizkuntza eredu eta maisu batek ukan behar duen kultura adierazten du. Ahozko eredu linguistikoa zaharrek duten euskara jarria da: «Irakurtzean, iduri zitzaukun, gozo bezain aberatsa zelakotz, entzun ginuela lehen-go euskaldun etxeko jaun bat, edo zombait herritan oraino ikusten diren etxekandere errespetagarri batzu, dena bihotz eta zuhurtzia, artetan elasturi izpi batekin». Idatzizko eredu linguistikoa berriz, euskara tinko eta motza da: «Euskaldun hizkuntzan trebeagorik ez zitaken; atertzerik gabe bazariolako itxura batekin, biziki urriki zuelarik izkiriartzen bizkitartean eta hitz bakotxari luzaz gogoeta egonik».

Bestalde, Etxepareren irakasle idealak, Hiriart Urrutyk bezala, hizkuntza anitz menderatzen ditu: frantsesa, alemana, latina eta grekoa, «Eskolemaile jarri zelarrik, nork behin ere entzun ditu Larresoron, haren bezain gogotik eta ederki frantseserat itzultzen Ciceron abokat erromano famatuaren liburuak?» (Etxepare, 1984, 173. or.). Maisuak kultura antikoa eta humanista du: «Gure laborari seme buru hautekoa hazi bezala zen, mintzai ederrenez, hek baitira latina eta greka: bat eta bertzea, jakitatearen bezenbat gizonarentzat zuhurtziaren baitezpadako iturri». Antzinate greko-erromatarreko hizkuntza jakiteak irakasleari bizian zuhurtzia ekartzen dio.

Arnaud Abbadie irakasleak bezala, Etxepareren irakasle idealak euskara eta frantsesa bi hizkuntzak menderatzen ditu:

Hitz bat bakarrik frantsesez haren mintzatzeko talenduaz. Gutxi agertzen da, guziz euskaldunen artean, hitz bakotxaren begitarte eta barneko pindarraren, harek bezain xuxen, berri zakienik. Nola nahi bazariolarik, ahopaldi zaila zuen bizkitartean eta apur bat nekea, euskaraz bezala.

Bestalde, filosofia irakasle izatea figuraren parte da, adimenduaren irakaskuntza transmititzen baitu: «Hari dakogu zor, Euskal Herrian zerbait giren gehienek, gure adimenduko indarririk hoberena: zoin bidez dabilan xuxen jakitea; makur doala zertarik gitazken ohart, sendo gireno».

Jean Blaise Adéma edestia eta ludiztia⁶ irakasleak, ikasleak laborantzako kulturari eta jende xeheari ohartarazten ditu. Hori ere, Etxepareren irakaslearen figura idealaren parte bat da: «Erakasle baten gai osoaz jende xehearen ohartaraztea, bego haren ganik ikasi mutiko gazteen gain, entzunaren ariaz beretu badute eta guziz maitatu»⁷.

Hil berri kroniketarik saiakera literariorat, Etxeparek marrazten duen erriente eta errientsaren figurak ere aurpegi anitz ditu. «Igande arratsaldetan neskato gazteentzat» saiakeran, jakitate handiko errientea laikoa zaio egokiena, neskato gazteei biziko gauza praktikoen irakasteko: «Ageri da jakitate handiko bezain gogo azkarrekoa lukela behar errientsak holako lan baten bururatzeko gure herrietan» (Etchepare, 1910). Etxeparearentzat, emazte xumeen heziketa laikoa izan behar da, eta orokortua, neska guzietatik hedatua. Konbentziturik da emazte xumeak ere heziketa laikoa merezi duela, arras berriak da. Emazte xumearen eskolatzearen ideia XIX. mendean sortzen da eta emekimeki bere bidea egiten du. Elizak du gaia bere gain hartzen, kongregazioen bitartez, frantses estatuak ez du horren axolarik.

Neskentzat proposatzen duen eskolako kultura eguneroko biziari itzulita da, praktikoa eta biziko beharrei lotua, neska gazteak emazte bilakatuko delarik gizartean ukanen duen tokiari lotua: andre, ama eta etxeko andere. Emaztea etxearen atxikitze eta haurren hezteko gai izan behar da. «Nor eskola emaile. Zer irakats» saiakeran, haurren erriente izateko, aita eta ama familiakoak hobekiena zaizkio: «Haurren argitzea, haurren altxatzea gizon eta emazte xoilan eskuetan emeki emeki jar dadien litake gure xederik minena». Aldiz, apaiza erriente izatetik kentzen du «apeza ez da eskola emaiteko egin» (Etchepare, 1910).

6 Historia eta geografia.

7 Jean Blaise Adéma berantago hil izan da, 1936an. Jean Etxeparek hil berri kronika idatziko du ere haren omentzeko.

4. GOGOETATZETIK OBRATZERAT (1917-1926)

4.1. Euskara eskolan 1920 urteetan: akuilatua eta debekatua

1923an, Baionako Gieure apezpikuak (1851-1937) nahi du euskara eskola handietan eta herri ttipietako eskola katolikoetan irakatsia izan dadin: «Le Bulletin religieux de ce jour annonce que l'enseignement des langues régionales est créé dans le diocèse de Bayonne et donc l'enseignement de la langue basque est fondé dans les établissements basques» [Egungo *Bulletin religieux* aldizkariak dio tokiko hizkuntzen irakaskuntza sortzen dela Baionako diozesan eta beraz euskararen irakaskuntza sortzen da euskal ikastetxeetan] (Gieure, 1923, 642. or.). Euskara, euskal literatura eta Euskal Herriko historia irakaskuntza programetan sartzen dira, Baionako eta Oloroeko diozesako ikastetxeetan, lehen eta bigarren mailan. Ariketa akademikoak dira: diktaketa, testu azalpena, idazketa, itzulpena (euskaratik frantseserat eta alderantziz), konposizioa, etab., eta euskarako programa zuberotar euskalkian eta lapurtar euskalkian deklinatua da.

Zenbait urte berantago, proiektua gauzatua da: Donibane Lohizuneko San Josep eskolan euskarako kurtsoak badira. Hélène Legartoren errientsak ditu ematen, Milafrangako Andrée Marie Thérèse Larue-ek. Hautuzko irakasgaia da euskara eta gramatika, aditzak, diktaketa lantzen dituzte (Artxiboak, 2011). Hezkuntzaren historian usu gertatzen den bezala, praktikak erabaki ofizialak baino lehenago heldu dira: 1923a aitzin, Jean Barbier Senpereko apaiza, euskarako kurtsoen ematen hasia zen kongregazio eskoletan.

1925eko agorrilaren 14an, Anatole de Monzie hezkuntza publikoko ministroak zirkular bat plazaratzen du. Frantziako eskola guzietan tokiko hizkuntzen irakaskuntza debekatu du: «L'École laïque, pas plus que l'Église concordataire, ne saurait abriter des parlours concurrents d'une langue française dont le culte jaloux n'aura jamais assez d'autels». [Eskola laikoak, ez Eliza konkordatuak, ez lituzke bere baitan behar frantses hizkuntzaren lehiakide diren mintzairak zeinetaz bekaizti den kultuak sekula ez baitu ukanen aldare aski] (De Monzie, 1925). Metodo konparatiboa baztertuta da, eta eskolan haurrei frantsesaren ikasazteko, errientez ez dute gehiago euskara baliatzen ahal. Urriari, Etxeparek «De Monzie, euskararen etsai» artikulua agerrarazten du (Etxepare, 1984, 127-129. or.).

Bigarren partean, haurrei frantsesaren ikasazteko baliatzen diren bi metodoak aipatzen ditu: metodo konparatiboa eta metodo zuzena. Metodo zuzena, 1890ean, Irénée Carré-k (1829-1909), lehen mailako inspektore nagusiak, frantsesaren ikasteko plantan ezarri duen metodoa da (Castoréo, 1995). Frantzia diren irakaskuntza testuinguruak elkarri konparatzen ditu, Ipar Euskal Herriko eta Britainiako egoerak parekatuz. Euskaldunak Britainiarrak baino hobeki kontsideratzen ditu:

[...] les Basques sont généralement plus propres et plus civilisés que les Bretons; les instituteurs sont plus capables, moins épais et moins apathiques; les enfants ont l'esprit plus ouvert, l'intelligence plus vive et plus éveillée; on arrive facilement à les faire parler.

parce que les petits Basques qui arrivent à l'école ont l'esprit plus développé que les petits Bretons, et par suite un acquis dont on peut tenir compte », que le maître exerçant dans cette région, à la différence de son collègue breton, pourra avoir recours à la langue maternelle des élèves « pour le nom des objets qu'on ne pourra faire voir ni en nature ni en représentation, et aussi pour les noms abstraits et généraux correspondant à des choses dont le petit Basque a déjà l'idée et le mot dans sa langue.

Je ne verrais aucun inconvénient à ce qu'en France personne ne parlât plus le breton, tandis qu'il est utile que les Basques puissent communiquer avec leurs congénères espagnols, trois ou quatre fois plus nombreux qu'eux.

Metodo konparatiboarekin, haurrek frantsesa ikasten dute euskaran oinarrituz. XIX. mendean, ikasmateriala eta metodoak argitaratzen dira: 1848an, Jean Baptiste Archu zuberotarrak argitaratzen du *Choix de fables de La Fontaine traduites en vers basques. La Fontainaren aleguia berheziak, neurt-hitzez franzesetik uskarara itzuliak*, bi hizkuntzetan. Lau urte berantago, *Grammaire basque bilingue française et basque à l'usage des écoles du Pays basque - Uskara eta frantzes gramatika*.

Bestalde, nahiz Etxeparek ez duen aipatzen, hezkuntzaren historiak erakutsi du errienteak antia⁸ baliatu dutela euskararen erabileraren desagerrarazteko. Eskola batetik bestera, praktikak, objektuak eta zigorrak aldatzen dira: «bouchon basque» (euskal tapa), xiria, zurez edo burdinez, makila, eraztuna, etab., jostatzea debekatua, eskola garbitu, egun hondarrean oren bat gehiago eskolan, osteguneko eguna eskolan, errientearen zartakoa, etab. Inportantea da azpimarratzea egin molde horiek izan direla XIX. mendean eta oraino ere IV. Errepublikaren garaian (Orpustan, 1980).

4.2. Haurren primak (1923-1926)

1923 eta 1926 urteen artean, *Eskualtzaleen biltzarra* elkarteko buru izatearekin, Jean Etxeparek haurren zeingehiagokei indar berri bat ematen die. Gerla Handia aitzin, Etienne Decreptek eta Martin Landerretzek akuilatu zituzten. Ipar Euskal Herriko kantonamendu gehienetan, haurren primak antolatuak dira uztailean, Etxeparek Lacomberi idazten dion gutunean agertzen den bezala, ez nekezirik gabe haatik (Charritton & Casenave, 1995).

M. Diriarat aurait les fonds nécessaires pour cet objet, et aussi pour réinstaurer, dès cette année, le concours de basque entre vicaires des paroisses, dont je me réjouis.

Nous aurions donc trois concours, d'ici à la fin juillet. Il y a encore beaucoup à faire pour réchauffer l'enthousiasme des uns et des autres, notamment celui du monde officiel en ce qui concerne l'enseignement pratique du basque et l'organisation du

8 Antiaren sistemarekin, eskolan, haur batek beste haur bat entzuten zuelarik euskaraz mintzo, antia ematen zion, eta antia azkenik eskutan zuen haurra gaztigatua zen.

concours entre élèves des écoles primaires. Nous ne désespérons cependant pas d'arriver à quelque résultat, le temps aidant. Pour le quart d'heure, nous nous démenons afin d'établir un ou plusieurs centres de composition dans chaque canton. Il semble que nous allons réussir, à deux ou trois unités près.

III. Errepublikaren garaian, kantonamenduen inportantzia ezagun da. «Le canton et son chef-lieu occupent dans la géographie administrative de la IIIème République une place considérable, aujourd'hui trop souvent oubliée» (Cabanel, 2002, 188. or.).

Hurrek bi taldetan (10 urte baino gutiago eta 10 eta 13 urte artean) itzulpenak egin behar dituzte eta gutun bat idatzi. 1923an, 114 kopietan, haur gehienek euskara garbia da, hutsak ortografia eta puntuazio mailakoak dira. Ahozko euskararen eta idatzizkoaren artean alde handia agertzen da. Urtetik urtera, parte hartzen duten ikasleen kopurua emendatzen da eta beren euskara maila hobetzen (Altonaga, 2006, 177. or.).

Sarizatuak diren haurren izenak, *Eskualduna* astekariko «Eskuara» saileko artikuluetan ezagun dira, Etxeparek agerrarazirik. «L'entre deux-guerres connaît l'apogée des récompenses, peut-être en raison d'une nouvelle sollicitude envers les enfants d'une nation frappée par les carnages de 1914-18» (Cabanel, 2002, 198. or.).

1924an, parte hartu duten Ipar Euskal Herriko herri euskaldunen sailkapen bat ematen du: Baigorriko eta Iholdiko haurren euskara garbia, Azkaineko haurren nagusitasuna Urruñakoei eta Ziburukoei, Maulekoen euskara maila ertaina, Donapaleutar eta Hazpandarren trebatze eskasa idatzian, etab.

4.3. Ipar Euskal Herriko haur euskaldun ikasia

1923 eta 1926 urteen artean, Eskualtzaleen biltzarra elkarteko buru gisa eta haurren primak antolatzaile gisa, Etxeparek Ipar Euskal Herriko ikasle euskaldunak duen kulturaren berri ematen du. *Eskualduna* astekarian artikulua argitaratzen ditu. Bertako, haur euskaldun ikasia elebidun orekatua da, euskara eta frantsesa bi hizkuntzak maila berean mintzatzen, irakurtzen eta idazten dakiena. 1923an, Baigorriko kantonamenduko haurren eredia miresten du: «Loriatuak egon gira haurren euskara garbi eta apainduaz. Hizkuntza, idazkera eta izkirionea bera, oro onak zituzten, bederen onttoak. Frantsesa bertzalde, ontsa ikasten bide dute, euskaralat itzultzeko hain xuxen aditu dutenaz geroz (Etchepare, 1984, 179. or.)».

Etxeparek marrazten duen ikasle idealak bi eskola gramatiken ezagutza metalinguistikoa ukan behar luke, euskal eta frantses gramatika, bi hizkuntzen gramatiken ezagutzeak bata bestea aberasten baitu: «Hasia du norbaitek egiten “grammaire” ttipi bat, ezin ikas-errexagoa, zointan neurritz nahastekatuak izanen baitira frantsesa eta euskara, batek bertze argitzen dutela eta, ahamenka haurren buruan sartzen» (Etchepare, 1984, 182. or.). Etxeparek marrazten duen haur euskaldun ikasiak euskarazko liburuen irakurtzeko usaia baluke, katiximatik kanpo, gorentasunera bultzatua da.

5. BURURAPENA

XIX. mende hondarretik goiti, eskolak eragin handia ukan du euskararen ahozko praktikaren apaltzean Ipar Euskal Herrian. Bihurgune nagusia III. Errepublika garaian izan da, baina prozesua lehenagotik abiatua zen eta berantago ere iraun du V. Errepublika garaian. Eskolak euskararen gibel egitean parte hartu du, hizkuntza gutietsiz eta haur euskaldunak hobendun sentiaraziz.

Jean Etxeparek, eskolako kulturaren gaiaren inguruan gogoeta mamitsu eta koherentea proposatu du eta gogoeta obratu: ikusmolde laikoa eta humanista, eskola laikoen eta publikoen arteko errespetua, euskararen irakaskuntza berriaren antolaketak, ariketa motak eta metodo pedagogikoak, ikasle ikasiaren kultura, irakasle onaren figura, etab.

Azterketa honetan norabide batzuk baizik ez ditugu zehaztu. Jean Etxeparek eskolari buruz duen pentsamolde orokorraren barnatzeko ikerketa zabalago bat eraman behar litzateke.

6. ERREFERENTZIAK

- Altonaga, K. (2006). *Etxepare, Aldudeko medikua*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Artxiboak. (2011). Donibane Lohizuneko herrikoa artxiboak. Helène Légarto. https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Donibane_Lohizuneko_H%C3%A9l%C3%A9ne_Legarto.webm helbidetik eskuratua.
- Artxiboak. (2012). Donibane Lohizuneko herriko artxiboak. <https://www.mintzoak.eus/eu/donibane-lohizune/elkarrizketak/171/> helbidetik eskuratua.
- Artxiboak. (2015). Donibane Lohizuneko herriko artxiboak. <https://www.mintzoak.eus/eu/donibane-lohizune/pasarteak/171-3/> helbidetik eskuratua.
- Bidegain, E. (2012). *Lehen mundu gerra «Eskualduna» astekarian* (argitaratu gabeko doktore-tesia). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- Bordenave, J. (1995). Les Servantes de Marie d'Anglet face aux lois anti-congréganistes 1901-1904. In *Elizak eta estatua bereizteko legea. Ondorioak Euskal Herrian (1905-1906)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Bruno, G. (1877). *Le tour de France par deux enfants*. Paris: Belin.
- Cabanel, P. (2002). *La République du certificat d'Etudes primaires*. Paris: Belin.
- Casenave, J. (2002). *De l'article de presse à l'essai littéraire : Buruchkak (1910) de Jean Etchepare*. Madrid: UNED.
- Castoréo, P. (1995). Langue basque et enseignement primaire public des années 1880 à 1914. In *Pierre Haristoy. Historia Jardunaldia* (137.-152. or.). Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Chanet, J. F. (1996). *L'Ecole républicaine et les petites patries*. Paris: Aubier.
- Charritton, P. & Casenave, J. (1995). Les lettres du Dr Jean Etchepare à Georges Lacombe (2/6/1905 - 4/3/1932). *Bulletin du Musée basque*, 142, 49-100.
- De Monzie, A. (1995). Circulaire sur les idiomes locaux. In *L'enseignement du Français à l'école primaire – Textes officiels. Tome 2 : 1880-1939*. (334.-337. or.).

- Paris: Institut national de recherche pédagogique. https://www.persee.fr/doc/inrp_0000-0000_1995_ant_5_2_2076 helbidetik eskuratua.
- Etchebarne, E. (1989). *Erramun harginaren oroitzapenak*. Donostia: Auspoa, Etor.
- Etchepare, J. (1910). *Buruxkak*. Tours: Mame.
- Etchepare, J. (1903ko martxoaren 13a). Mendionde. *Eskualduna*, 821, 3.
- Etchepare, J. (1903ko martxoaren 27a). Mendionde. *Eskualduna*, 823, 3.
- Etchepare, J. (1903ko apirilaren 3a). Mendionde. *Eskualduna*, 824, 3.
- Etchepare, J. (1903ko apirilaren 24a). Mendionde. *Eskualduna*, 827, 3.
- Etchepare, J. (1903ko agorrilaren 14a). Mendionde. *Eskualduna*, 842, 3.
- Etchepare, J. (1903ko urriaren 30a). Mendionde. *Eskualduna*, 853, 2.
- Etchepare, J. (1904ko urtarrilaren 15a). Errientak. *Eskualduna*, 2, 1.
- Etchepare, J. (1911ko buruilaren 1a). Eskuararen erakustea. *Eskualduna*, 1273, 1-2.
- Etchepare, J. (1911ko buruilaren 8a). Eskuararen erakusteko. *Eskualduna*, 1274, 2.
- Etchepare, J. (1911ko buruilaren 15a). Eskuara non erakuts. *Eskualduna*, 1275, 1.
- Etchepare, J. (1923ko agorrilaren 24a). Zer den gertatu. *Eskualduna*, 1238, 1-2.
- Etchepare, J. (1923ko urriaren 26a). Eskuara. *Eskualduna*, 1247, 1.
- Etchepare, J. (1924ko ekainaren 20a). Haurren eskuarazko primak. *Eskualduna*, 1281, 2.
- Etchepare, J. (1924ko uztailaren 25a). Eskuara. *Eskualduna*, 1286, 2.
- Etchepare, J. (1925eko urriaren 30a). De Monzie eskuararen etsai. *Eskualduna*, 1352, 2.
- Etchepare, J. (1926ko maiatzaren 21a). Bigarren andana. *Eskualduna*, 1381, 2.
- Etchepare, J. (1926ko ekainaren 11a). Haurrer. Euskara eta frantsesa. *Eskualduna*, 1384, 2.
- Etchepare, J. (1926ko uztailaren 9a). Eskuara. *Eskualduna*, 1388, 3.
- Etchepare, J. (1984). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, Euskal gaiak* (P. Charrittonnek prestatua). Donostia: Elkar.
- Etchepare, J. (1984). Jean Hiriart Urruty kalonjea (1859-1915). In *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, Euskal gaiak* (171.-175. or.). Donostia: Elkar.
- Etchepare, J. (1984). Arnaud Abbadie Kalonjea (1843-1916). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, Euskal gaiak*. (177.-181. or.). Donostia: Elkar.
- Etchepare, J. (1984). Jean Blaise Adema jauna (1861-1936). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, Euskal gaiak*. (225.-233. or.). Donostia: Elkar.
- Etchepare, J. (1988). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. III, kazetaritza (A) (1903-1915)*. Donostia: Elkar.
- Gartzia Trujillo, S. (2016). Jean Etxepare, Aldudeko medikua euskal modernitatearen brankako irudia. In *Hamaika euskal literato eta Jainkoa* (67.-188. or.). Bilbo: UPV/EHU.
- Gieure M. (1923ko azaroa). Lettre de Monseigneur Gieure à Gure Herria. *Gure Herria*, 11, 642-643.
- Goyhenetche, M. (1994). Les origines sociales de l'association *Euskaltzaleen biltzarra* (1893-1913). *Bulletin du Musée basque*, 135, 1-68.
- Jaurès, J. (1911). Méthode comparée. *Revue de l'Enseignement Primaire*.
- Lafitte, P. (1941 [1980]). Jean Etxepare jaun medikua (1877-1935): aitzin-solas. In *Buruxkak, J. Etchepare*. Donostia: Elkar.

- Noacco, C. Bonnet, C. Marot, P. & Orfanos C. (zuz.). (2013). *Figures du maître - De l'autorité à l'autonomie*. Rennes: Presses Universitaires de Rennes. DOI: <https://doi.org/10.4000/books.pur.55995>
- Nora, P. (1984). *Les lieux de mémoire I. La République*. Paris: Gallimard.
- Orpustan, J.-B. (1980). Rôle et pouvoirs de l'Église. In *La Nouvelle société basque. Ruptures et changements* (108.-158. or.). Paris: L'Harmattan.
- Ortiz de Pinedo, A. (2018). Jean Etxepareren «Beribilez» (1931): bidaia eta ideologia (argitaratu gabeko doktore-tesia). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- Tauzia, P. (1973). La IIIème République et l'enseignement religieux en langue basque. *Bulletin de la Société des Sciences Lettres et Arts de Bayonne*, 129, 367-384.
- Thiesse, A.-M. (1997). *Ils apprenaient la France: l'exaltation des régions dans le discours patriotique*. Paris: Éditions de la Maison des sciences de l'homme. DOI: <https://doi.org/10.4000/books.editionsmsmh.2475>